

AINARA LEGARDONI BURUZ

Ainara LeGardon musikaria da eta 25 urte daramazki artista autogestionatu gisa lanean. Paraleloan, ikerlari eta dibulgatzaile moduan egiten du lan, Jabetza Intelektualaren eta Kultur kudeaketaren esparruetan lan zabala osatuz. “Otro modelo es posible” izeneko ikerketan, musikaren alorreko eskubideen kudeaketa ereduak aztertutik, paradigma aldaketa baten beharra eta bideragarritasuna baloratu. Lan honi esker, “Jabetza Intelektuala eta eskubide digitalen kudeaketa” gaian, Instituto Superior de Arte · I|Art. Art & Culture Business School-en (2014) titulazioa jaso zuen, ohorezko matrikularekin. 2009an “Sorkuntzaren garapenaren eta jakintzaren kudeaketa teknikari” titulua jaso zuen Salamankako Unibertsitatean. Hauxe gain, IGECaK eta Miguel de Cervantes Unibertsitate Europearrak antolatutako ikastaroan “Zuzenbide editorialean espezializazioa” bermatzen duen titulua, Thomson Reuters Aranzadi-k (2017) emandako “Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien zuzenbidean aditua” titulua, eta Intangia elkartearen (2017 eta 2018) eskutik, alor grafiko, plastiko nahiz eszenikoetarako “Ukiezinen kudeaketan aditua” titulua ere jaso ditu.

2015ean, Premio Rodrigo Uría Meruéndano de Derecho del Arte sari entzutetsuaren epaimahaiak “Revisión del marco legislativo de la Unión Europea en materia de propiedad intelectual” artikulua aukeratu zuen. Lan hau, Civitas-Thomson Reuters Aranzadi argitaletxeak Derecho del Arte. Anuario Iberoamericano 2016 liburuan argitaratu zen.

Horrez gain, *SGAE: el monopolio en decadencia* (consonni, 2017) saiakera kritikoa idatzi zuen David García Aristeguiarekin batera.

Euskal Herriko Musika Bulegoa elkarteak, Euskal Irudigileak, Arragua eta Tabakalerako 2DEO ikusentzunezko laborategia erakundeentzako aholkulari lanak egin ohi ditu eta Irungo CBA kultur zentruan «Copyzer» aholkularitza zerbitzua koordinatzen du.

2018ko abenduaz geroztik Kulturaren Euskal kontseiluko kide da, “Genero politikak eta estrategiak” taldean. 2019an, “Emakume eta gizonen egoera EAEko musika sorkuntzaren arloan” txostena osatu zuen Eusko Jaurlaritzaren enkarguz.



IRAKASKUNTZA ALORREAN ESPERIENTZIA

Hainbat hitzaldi eta lantegi eman ditu honako lekuetan: Madrilgo Abokatuen Elkargo Prestua, Artium-Arte Garaikidearen Euskal zentru-museoa, Durangoko Azoka, San Telmo Museoa, MUSAC- Gaztela eta Leongo Arte Garaikidearen Museoa, Las Palmas de Gran Canariako Musika Kontserbatorio Profesionala , ETOPIA Zaragozako Arte eta Teknologia zentrua, eta EAEko, Alakanteko eta Burgosko Unibertsitateetan, besteak beste.

Iraganeko aktibitateak (azken urteotan emandako lantegi, ikastaro eta hitzaldi guztien zerrenda osoa) www.ainaralegardon.com webguneko ekitaldien artxiboan kontsulta daitezke.

